

DIRU ITURRIAK

Proiektu baterako finantzaketa aurkitzea da enpresa berri bat sortzeko sortzen diren zailtasun ugarietako bat. Hori garatzeko baliabiderik ez izateak zaildu egiten du enpresa hastea. Horregatik, urratsa eman aurretik, garrantzitsua da laguntzak aurkitzea. Diru-sarrerren iturriak gure negozio-eredu osatzeko faktore garrantzitsuenetakoak dira. Beraz, gure enpresa aurre eramatea posiblea izateko diru iturriak behar ditugu. Hauek izango dira garrantzitsuenak:

FUTBOL TXAPELKETA

Lehenik eta behin, egingo dugun jardueretako bat **futbol txapelketa** bat izango da, txapelketa hau urtean bitan egingo dugu, bata Gabonetan eta bestea udan. Txapelketa honek etekinak ematen dizkigula, ospe handia ematen duela eta jende askok parte hartu nahi duela ikusiz gero, txapelketa Bilbon bakarrik egin beharrean, Espainiako hiri gehiagotan antolatzen hasiko gara. Horrela, mundu guztiak parte hartu ahal izango du inolako arazorik gabe.

Hasteko, gure sare sozialetara esteka bat igoko dugu, adin ezberdinetako neska-mutilek txapelketa honetan parte hartzeko izena eman ahal izateko (11 laguneko taldeetan eman behar dute izena, ez banaka). Txapelketa modu normal batean egingo da, hau da, talde irabazleak faseka joango dira finalera iritsi arte.

Irabazleek gure markako pare bat kirol-zapatila jasoko dituzte. Jardueran parte hartzeak 5 €-ko kostua izango du pertsonako, eta lehen fasean 30 taldek parte hartu ahal izango dute (330 pertsona, gutxi gorabehera). Txapelketa hau ezin hobea da lagunekin gustukoak duten kirolaz gozatu nahi dutenentzat. Gainera, jokatu beharrik gabe txapelketa ikustera joan nahi dutenek 3€ ordaindu beharko dute pertsonako.

Diru iturri hau, nahiz eta oso handia ez izan, oso baliogarria izango da guretzako, ez soilik sarrerak lortzeko, baizik eta gure zonaldean garatzen ari dugun produktua bultzateko eta jendearen artean ezaguna egiteko ere. Hori, aldi berean, balio handikoa izango da, hainbat enpresak erakartzen eta horietan interesa sortzen lagunduko baitigu, enpresek inbertitzea erabaki dezaten.



EKINTZAILE DIGITALAK

Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioak (MINECO) 51 milioi euro bideratuko ditu datozen hiru



urteetan emakumeen ekintzaitza digitala bultzatzera, ENISA Ekintzaile Digitalak finantzaketa-linearen bidez. Helburua da, finantzaketaren bidez, emakumeen ekintzaitza digitaleko proiektuak babestea eta bultzatzea, eta eremu horretan dagoen genero-arrakala murriztea.

Garapen-bidean dauden edo hazten ari diren enpresa txiki eta ertainek lortu ahal izango dituzte partaidetza-maileguak, baldin eta gizartean emakume batek edo batzuek lidergo edo botere-posizio garrantzitsua badute. Ildo hori enpresa sortu berriei eta sendotze, hazkunde edo nazioartekotze-proiektutzat jotzen diren enpresei zuzenduta dago.

Gure enpresa, hasiera batean enpresa txiki bat izango da beraz, gure helburua, enpresa hau handiago bihurtzea eta ahal izatekotan internazionalizatzea izango da. Orduan, ikusi dezakegu, gure enpresa txiki honek aukerak izango dituela finantzaketa lortzeko.

Horretaz gain, gure enpresaren ezaugarriak ikusita eta finantzaketa lortzeko ezaugarriak ikusita ondorioztatu dezakegu gure enpresak baldintza gehienak betetzen dituela: aurrean aipatu dugun bezala, gure enpresa txikia da eta haren helburuenetako bat internazionalizatzea da. Gainera, azpimarratu behar da, gure enpresaren ekintzaile gehienak emakumeak direla (faktore honek eragin handia du finantziarioa lortzerako orduan).

Gure enpresa mailegu honen baldintzekin bat egiten duenez, 100.000€ jasotzea espero dugu hasierako inbertsioa ordaindu ahal izateko.

Enisarekin mailegua eskatzerakoan gida hau jarraituko dugu:

<https://cdn.enisa.es/EcommerceProduct/E00C5FFE7E4BA944026DDB009E8BDEB4/ATTACHMENT/2A7601BA1FC81C60DB123C8CAC58B1C3/a80912ef6452e701f615919202c2559fa82b6c70.pdf>

ICO MAILEGUAK EKINTZAILEENTZAT

Kasu honetan, guk ere Espainian gazte ekintzaileei ematen zaizkien laguntzak erabiliko ditugu.

Ekintzaileentzako ICO maileguak dira laguntzetako bat. Hori lortzeko, laguntza bat eskatu behar diogu Kreditu Ofizialeko Institutuari, eta beraiek finantzaketa-lerroak eta laguntzak emango dizkigu ekintzaile autonomoentzat eta plan errentagarri bat duten enpresentzat, gure kasuan bezala,

emakumeetan oinarritutako oinetakoen eta kirol-ekipamenduen enpresarekin. Emango dizkiguten maileguak ICO maileguak dira.

Gehienez 12,5 milioi euro emango dizkigute. Mailegu honen ezaugarrietako bat da jarduera Espainian egin behar dela, eta gure enpresak baldintza hori betetzen du. Bestalde, mailegu-mota eta interes-tasa desberdinak daude, eta amortizazio- eta gabealdia 1 eta 20 urte artekoa da.

Hauk dira ekiteko gure beharretara egokitzen diren gaur egungo laguntzetako batzuk. Hala ere, garrantzitsua da bilaketa intentsiboa egitea, baita profesionali galdetzea ere, gure proiekturako egokienak zein izango diren jakiteko.

ICOren maileguari buruz jakin behar dugun informazio guztia liburuxka honetan agertzen da:

<https://folletolineasico.ico.es/ico/folleto/es/lineas-ico.pdf>

IBERDROLA ENPRESAREN BABESLETZA

Funtsezko elkartean atalean azaldu dugun moduan, Iberdrola emakumeen kirolarekin konprometituta dago, eta bereziki emakumezkoen futbolarekin, eta, gainera, gai horiei laguntza gehien ematen dien enpresetako bat da. Era berean, 2016. urteaz geroztik, Iberdrolak Emakumezkoen Futbol Liga eta emakumeen kirolari buruzko beste erakunde batzuk babesten ditu. Horregatik, Iberdrola bezalako enpresa batek, gure kausarekin bat egiten duena, gure produktuak babestea oso aukera interesgarria dela uste dugu. Gure asmoa babesletza-akordio batera iristea litzateke, eta akordio hori onuragarria izango litzateke bi aldeentzat. Alde batetik, guretzat laguntza ekonomiko garrantzitsua izango litzateke gure produktua garatzeko, eta, bestetik, enpresa gure produktuen bidez sustatuko litzateke eta emakumeen futbola babesteko politikarekin jarraituko luke. Adibidez, liga femeninoarekin duen akordioa 1,3 eta 1,7 milioi eurokoa da denboraldi bakoitzeko. Halaber, 100.000 euroko saria ematen dio talde bakoitzari, kamiseta, publizitate-hesi eta elkarrizketa-gunean egotearen truke. Hori dela eta, gure ustez, taldeek duten akordio moduko bat eskuratu ahal izango genuke, eta, beraz, babes-akordioaren zifrak 100.000 euro ingurukoak izango lirateke.

Azkenik, diru-iturrien banaketei dagokionez, ICO eta ENISA maileguak izango dira gure diru-iturri indartsuenak, sarreraren %60-a eta %25-a izango baitira, hurrenez-hurren. Bestalde, Iberdrola behar ditugun diru-iturrien %10-a emango digu eta Futbol Txapelketak sarreraren %5-a suposatuko du.

